



Benito
Larrakoetxea
Agirrezabala

*Hemen nabiz erbestean
euskaltzale*

(1894-1990)

BIDeGILEAK

Egilea:

Pablo Anduaga



BENITO LARRAKOETXEA AGIRREZABALA

(1894-1990)

Herriaren nortasunaren bila hizkuntzaren bidetik

Benito Larrakoetxearen azken urteak bakarrik bizi izan nituen haren ondoan. Ibilbide luze eta oparo baten ondoren, Oñatiko agustindarren komentuan iragan zuen urte mordera, Argentinako Saltan bere bizitzaren onena eman eta gero. Gogoan dut oraindik hil aurreko egunetan ere jatorduetara ekartzen genuela, jarleku gurpildunean eserita, beste lagunok konpartitzera eta gozatzera.

Gero, egon lekuan, beti berean, berogailuaren ondoan behar zenerako, bere pipari etengabe tira eta tira. Hura garbitzen ere lagundu behar izaten genion tarteka.

Egunkariei begiradaxo bat gainera eman, bere lanak berrikusi argitaratu aurretik, hitz gurutzatuak betetzen denbora apur bat pasatu...



Oñatiko agustino laterandarren komentua eta eliza

Horrela ikusi eta bizi izan nituen Aita Benitoren azken urteak. Benitorenak edo Be-ditarenak, halaxe sinatzen baitzituen bere idazlanak. Azkenean ikusi ahal izan zuen bere ametsa beteta: W. Shakespeare euskaraz irakurri eta eskaini ahal izatea.

Aita Benito Larrakoetxeak bere buruan eta bihotzean beti arakatu zuen Euskal Herriaren egoera, eta haren alde zerbait egin beharra zeukala iruditu zitzaion. Hasi gaztarroan eta bere bizitza osoan zehar helburu hori aurrera eramaten asper gabe saiatu zen. Eta bera hil zenetik urteak pasatu direnean, ikuspegi osoagoa dugu bere lan eta ahaleginei buruz.

ZEANURIKO BASERRITIK APAIZGINTZARA ETA EUSKALGINTZARA

Bizkaian, Arratia bailarako Zeanuri herrian jaio zen Larrakoetxea 1894ko ekainaren 23an, Undurraga auzoko Altxagutxi baserrian, eta Oñatin Laterandar Kanonigoen komentuan hil zen 1990eko uztailaren 10ean, 96 urte zituela. Bere lanerako ezinbesteko iturri oparoa bilakatu zitzaion jaioterria: bertako bizimodua, nekazaritza



Zeanuriko parroikia

alorreko ohitura eta usadioak, Zeanuri berearen geografia berezia, Gorbeia-aren azpiko babeseta eta hizkuntza saileko kutsadurarik gabeko egoera izan zituen sarritan mintzagai eta idazgai. Bere herriko eta, bide-nabar, Arratia osoko hizkuntza bikaina zela pentsatzen zuen, ez zuela hutsunerik, gabeziarik.

Bertan sortu zitzaion zapal dutako hizkuntza horrekiko maitasuna. Hantxe herri batek izan behar zuen duintasun eta nortasunaren norabideak. Hantxe euskara garbi eta dotorearen oinarriak, garaiko joera purista eta hitz berriak sortzearena. Hauek guztiak izan zituen bere lanaren ardatz eta tresna.

Oso gaztetandik Agustindar Laterandarren komentuan sartu eta, apaiz bidean egin beharreko ikasketak Altsasun eta Oñatin burutuz, Gasteizen ordenatu zen 1917an. Gasteizen bertan, Koldo Eleizalde mate-



Benito Larrakoetxea apaiz berri,
24 urterekin

matika-irakasle eta euskaltzale ospetsua ezagutu zuen eta zientzia-arloko gai batzuk hari esker ikasi zituen. Berehalaxe ekin zion Aita Benitok irakaskuntza-bideari.

HERRIA EUSKALDUNTZEN

Bizkaitik Oñatiratutako Arratiako semeak Euskal Herri euskalduna zuen amets, euskaraz baliatzen zena bere zeregin guztietan eta beste hizkuntzen eskaintzei, hitzen maila-egui begira egon gabe. Bere ama-hizkuntzaren muinari eta berez bere baitan zeukan garbitasunari, hil arteraino begiratu zion. Nekez hartuko zuen erdarazko hitz

bat. Euskararen mundua arakatua zuen. Baita Iparraldeko euskalkiak ere. Horrela, horiek denak beharko zituen Shakespeare-ren antzerki lan guztiak euskaratzeko.

Aldi batez bere ordenako estudianteei irakatsi ondoren, 1928an aldaketa garrantzitsua iritsi zitzaion Aita Benitori: Oñatiko unibertsitate zaharrean bigarren mailako institutua jarri zenean, 25 urtean eraikuntza historiko hartan herriko mutiko gehienei lehen mailako eskolak ematen ari ziztaizkien fraide maristek alde egin zuten. Premiazko egoera hura bideratu guran, Oñatiko udalak hitzarmen bat sinatu zuen agustindarrekin eta, horren ondorioz, agustino laterandar batzuk herri-eskolaren



Benito Larrakoetxea erdian, bere guraso eta neba-arreben artean, 1918 inguruan

kargu egin ziren 1928 eta 1936 bitartean, beste irakasle sekular batzuekin batera.

Udal eskola horretako arduradun nagusi Aita Larrakoetxea izan zen hasieratik. Hartarako gaitasun ofizialaren agiria atera behar izan zuen Iruñeko Irakasle-eskolan. Eta agiria eskuetan zuela itzuli zen bere lanera. Deigarriena, agian, zera da: Primo de Rivera diktadorearen garaietan hartutako erabaki hori ez zela II. Errepublikaren sasoian aldatu, irakasleok elizgizonak izan arren; bai, ordea, militar matxinatuak Oñatin sartu bezain laster.

Hiru mailaz eta gainera «komertzio» sail bereziaz osatzen zen eskola hau. Laguntzaile gisa beste agustindar batzuk izan zituen: besteak beste, Aita Frantzisko Madina oñatiarra, musikagile ospetsua, Aita Fernando Urkia nafarra, Laterandarrren Abate jenerala izango zena, Aita Alfonso Urkidi euskal idazlea, Aita Bizente Meabebasterretxea bizkaitarra eta abar.

Ohiko eskola hauetaz aparte, «gau-eskolak» ere antolatu zituen Larrakoetxeak. Jakina denez, baserrietako lanak ziren garai haietan etxeetan agintzen zutenak eta eskolak no-



Oñatiko udal eskolako irakasleak ikasleen artean 1930 inguruan. Ezkerretik eskuinera: Juan Elortondo, Fernando Urkia, Karlos Arrizabalaga, Bedita Larrakoetxea eta Frantzisko Madina

labaiteko «bigarren maila» betetzen zuen. Dena den, neguko gauak luzeak zirela eta, horiek aprobetxatzen zituzten hainbat herritarren alfabetatze-lanerako, Aita Bizente Meabebasterretxea lagun zuela. Zeregin hauetan Aita Benitok bederatzi urtez jardun zuen, eta bazen halako sintonia berezia herriaren eta irakasleen artean, egiten ziharduten lana bikaina zelako herritarren ustez. 1936ko irailaren 20an, ordurako gerra zibila lehertua egon arren, eskolak normaltasun osoz ari ziren lanean. Irailaren 21ean eskola ematea eten zen Oñatin erreketek eta falangistak sartu zirelako. Handik zenbait egunetara, berriro ere atek irekitzeko erabakia jakinarazi zen, baina zuzendaritzatik Aita Larrakoetxea kentzeko aginduaz. Horrek, ordea, indar frankistak iritsi ziren egun be-

rean alde egin zuen Oñatitik Bizkaia aldera, komentuan geldituz gero, bazekielako bere burua arrisku oso larrian egongo zela.

Beste pertsona batzuen ardurapean, eskola berriro zabaldu zen, baina hauei ere abertzale kutsua sumatu zieten, laster atek bertan behera itxi behar izan zituen, herriaren kaltetan. Garaiko zenbait herri-tarren oroitzapenetan garbi irauten dute orduko gorabeherek.

TESTU-LIBURUAK SORTZEN

Ikastolen munduak erakutsi digu zer-nolako nekeak izan ditugun, batez ere orain 50 bat urte. Aurreneko, libururik ez eta liburuak behar. Eta batera, liburuak zer-nolako hizkuntzan argitaratu: norberaren euskalkian ala sortu berria eta bideratzen ari zen euskara batuan.


Ba, 1932. urtean, Aita Benitok, Felipe Jausoro eskola-maisu oñatiarraren eskariz, lan honi heldu zion eta *Oñatiko Lutelestia* idatzi zuen, lehenengo mailtako ikasleentzat. Hartara, hauek izango zuten esku artean bere herriari buruzko zehaztasun ugari.

Testu-liburuaren beharra orduan inork ez zuen zalantzan ipintzen. Ba, bere eskuz oso txukun idatzita gorde da gaurdaino, guk Geografia eta Historia deituko geniokeen txosten bat, honelako xehetasunak dakartzana: Oñatiren kokapena, inguruko beste udalerrriak, herriko lur eta harkaitzen izara, kalitatea, bertako mendirik nagusienak, uren norabideak, erreasto desberdinen nondik norakoak; komunikabideak, orduko trenak, auzo desberdinen izenak eta bakoitzaren deskribapena; ikastetxeak, parrokia desberdinak, eta abar.

Bide batez, herria zerez bizi den, elikadurak, sortzen dituen ekoizpenak, saskigintza, aterkiak, burdingintza orokorra, aizkorak, nekazaritza tresnak, azken batez,



*Oñatiko
Lutelestia*, 1932



Gabriel
Jauregiren
Kimia, 1936

Oñati herri bezala egituratzen duten osagarri guztien berri ederki jaso zuen Aita Larrakoetxeak. Beraz, zeanuriztar hau, jaioterriko izaera ez ezik, Oñatik bere historia eta bere nortasunean zituen zutabe eta balioak islatzen ere saiatu zitzaigun. Lan hau argitaratzeke dago.

Testugintzarekin zerikusia zuten beste lan batzuk ere moldatu zituen urte haietan Zeanuriko semeak. Adibidez, Felix García Peñaren *Patología vegetal* liburukote ezaguna euskaratu zuen 1930 aldera (*Lan-dara landuben gatzak edonok aituteko eraz izenburuarekin*), baina zoritxarrez gerra-denboran galdu zen itzulpen hori. Eta Gabriel Jauregi karmeldarraren *Pisia* eta *Kimia* testuliburuak ere zuzendu zituen euskararen aldetik.

GERRA AURREA ETA EUSKARA

Gerra aurrean euskal kulturaren piztuera nabarmena gertatu zen euskal alorrean eta Aita Larrakoetxeak ere bere ekarpena egin zuen bultzatzaile horien artean. Azpimarratutako Oñatiko udal eskola eta gau eskoletan egindakoetatik aparte, beste lan hauek ere osatu eta argitaratu zituen: «Gorbaie'ko gaztagintzea» 1926an Donostian emandako hitzaldia, 1928an Euskal Esnalea elkarteak beste lantxo batzuekin batera argitaratu zena; eta «Agirrezabala'tar Toma talogintzan txapeldun», 1934. urtean Kirikiño saria jaso eta 1936an *Yakintza* aldizkarian agertu zena.

Agirrezabala'tar Tomari *Garoa* eleberriko protagonistaren antza hartzen diot: «azeririk bizkorrena baino arinago, azeriak baino neke gutxiago, arnasestua zer dan ez dakiala, buruarekin orpoari ukutuko leuskioke, azurrik eztaukala dirudi».

Tokian toki izen bereziak erabiltzen ditu: «Lanbreabeko Errota, Aldaminpe», taloaren kolorea, azala, gozotasuna, erretearen gorabeherak. Sua, su horren neurrria, erretzen jartzeko modua, eta ondoren

esnea, egosi eta irakiten, taloa bertan sartu eta bigundu dadin.

«Ez akit asarratu», esaldiarekin hasten du bere lana, agintera eta hikakoa batuz, «or akust», «dakustanez», aditz trinkoa sarri erabiliz, datiboa ere bai «akit bera», «nor augun» eta beste hainbat tokitako erabiler. Seguruenez Benitok berak urteetan zehar landuak.

Talogintzarekin batera, Gorbeia gaztagintzarenari buruzko lan ederra idatzita utzi zigun Larrakoetxeak.

«Gorbeia gaztagintzea» idazlana talogintzarena baino luzeagoa da. Garbi ikusten da gure protagonista, nahiz eta seminarioan bizi eta bere jaiotetxera joateko aukera gehiegirik ez izan, ondo baino hobeto barneratu zituela bere jaiotetxe nahiz etxe inguruko joerak, lanak eta trebeziak. Nekazaritza arloa eta abeltzaintzarena batez ere. Eta bere irudipean darama euskaldunaren eredia, garbia, osoa, inolako kutsadurarik gabekoa. Horrelakoa da Larrakoetxearen Zeanuri, baserria eta mendia. Nahiz eta Jerardo Elortzak kontatzen duen behin galdegin ziola Aita Benitori



Larrakoetxearen talogintzari buruzko lana, *Yakintza* aldizkaria, 1936

nola ez zitzaion bururatu zerbait poesia eran idaztea. Eta bere erantzuna honako hau izan zen: «Ni belarri txarrekoa nok; eta poesiak belarri ona bear yok». Hala ere «Talogintza» lanean nahiko jarrera poetikoa erakusten du, Elortzak kontatzen duen moduan.

Talogintzarena aztertu ondoren, orain «Gorbeia gaztagintzeari» egingo diogu gainbegiratu bat. Edozeinek esango luke Benito Larrakoetxea han, Gorbeia inguruko txabola batean bizi zela. Bertan deskribatzen zaigu txabola hori plano eta guzti. Hor lotarako eremua, suarena, gaztagintzarena.

Hor dugu artzaina, hilabete luzetan kalera jaitsi gabe mendian bizi dena. Hor artzain

horren elikadura; ugaria, bai, baina pobrea: taloa, esnea, gazta. Larrakoetxearen artzaina hiru horiekin elikatzen da eta ez du beste ezeren beharrik. Apur bat idealismoz jantzitako irudia deritzot, utopikoa. Seguruenez, pozik hartuko zuen etxeko lapikoaren gozotik kalera jaistean.

Gorbeiaiko gaztagintzan ez dago artean oraingo konturik, ez al baitariaren kontrolik, ez osasun alorreko azterketarik. Hori guztia artzainaren ardura da.

Hor deskribatzen ditu asunak, lohia edo zikina esnetara joan ez dadin erabiltzeko. Hor gorosti adarrez egindako tresna berezia esnari eragiteko. Hor mamia, hor gatzura, azkenean emaitza ona sor dadin: Gorbeiaiko gazta gozoa. Gazta horrek berez hartzen du kea txabolan, hori propio eman beharrik izan gabe. Larrakoetxeak Urbia ere ondo ezagutzen zuen eta dioenez Urbian artzainek badute toki berezia gaztak ke kutsuz janzteko.

NARRATZAILE BIKAINA

Ez zioten, ez, Kirikiño saria meriturik gabe eman. Horretarako aurkeztu zuen lana ez



Gorbaie'ko gaztagintzea, Donostia, 1928

da luzea. Bere Zeanuriko euskara garbian, arloan gaur ezezagunak zaizkigun hainbat hitz berezi esku artean dituela, hikako hizkuntza ederra benetan erabiliz. Taloa talo izango da beti. Baina Larrakoetxeak margotzen duena berehala jateko modukoa dela esango nuke. Berak dioenez Jainkoak ez dio poesiagintzarako trebetasunik eman. Baina narrazioan esan genezake gizon iaioa dela, egokia, artista. Egia esan, Larrakoetxearen prosa esanguratsua da, zuzena, bertan bizi izandakoa kontatzen duena, baserri eta Gorbeiaiko artzaintza inguruko giro hura.

Esan genezake Aita Larrakoetxearen bizitza hiru herri hauek markatu zutela: Zeanuri, Oñati eta Saltak. Zeanuri izan zitekeen bere *Odolaren mintzoa*, Xalbadorrenari kasu eginez; Oñati garapena, gizon arora heltzea nahiz helburuak finkatzea;



Hiru Larrakoetxea erlijioso, ezkerretik eskuinera:
Benito (laterandarra), Hipolito eta Maurizio
(karmeldarrak) anaiak

eta Salta idazle mardularen fruitu oparoa, Shakespeareren itzulpena burutzean.

Talogintzari buruzko lanari esker Kirikiño saria ematen diotenean, han ageri zaiugu Benito, haur koxkorra, bere osabari txabolako bizitoki apal eta bide batez goxo zen hartan barruko gela edo bizigune txiki, xume baina garbiak banan-banan erakusten, esne jaistea eta ondorengo beste pausoak zehaztasunez ematen, gazta eder eta gozoa gauzatu arte.

BASERRIKO OROITZAPENAK

Jakina da Aita Larrakoetxearen jaiotetxea, Altxagutxi baserria, 1950eko hamarkadan Undurragako urtegipean geratu zelako,

beste baserri batera aldatu beharra izan zutela. Saltatik itzuli eta Oñatin bizitzen jarri zenean, urtero uda garaian edota beste zereginen bat zegoenean, Zeanurira eramaten genuen autoz. Oraingoan Zuloaga baserrira, Uribe auzoan kokatuta dagoenera. Han pasatzen zituen egun batzuk, bere betiko ametsen kokalekuan iloba Juanatxo eta inguruko senideekin. Han zeuden sukalde inguruan ogia egiteko beharrezko zirenak. Oramahaia orez betea, gainean estalki batzuk egosteko temperatura mantentzeko edo. Baserriko martxaz arduratuta, Juanatxo pozik zen udaberri eta uda onaren ondoren artoak eta babarrunak bere emaitza ona emateko zeudenean. Zuloaga baserriak gaur ere bizirik dirau.



Zuloaga
baserria,
Zeanurin



Gerratea eta gerra ondokoak

Benito Larrakoetxea Argentinan izan zeneko agiria (1952)

Gorago aipatu denez, 1936ko uztailean gerra zibila irten zenean, Larrakoetxea eta bere irakaslekideak Oñatiko herri-eskoletan zortzi urtetan burututako lan ederra eten beharrean aurkitu ziren. Ikasurte berria hastear zegoenean, irailaren 21ean, sartu ziren herrian matxinatutako militarrek. Udaleko agintari berriek ezin zuten jasan aurreko urteetan nagusitzen ari zen giro euskaltzalea. Hartu zuten lehenengotariko erabakien artean Larrakoetxea eta beste eskola-maisu batzuk euren karguetatik kentzea izan zen. Aita Benito eta Felipe Jausoro alde eginak ziren 21ean bertan, eta beste zenbait irakaslek ere laster

heldu behar izan zioten kanporako bideari. Oñatiko udalak bizilagun berriak hartu zituen eta Aita Benito eta besteek zalapartaka ihes egin behar izan zuten. Aurrenik Zeanurira, bere txoko maitera jotzen du Benitok. Handik gutxira erbesterako bidea hartu zuen.

ERBESTEKO ZAURIAK ETA GOZAGARRI APALAK

Atzerriak batez ere zauriak ekarri zituen edozein aldetatik begiratuta ere. Familia utzi beharra, Oñatiko agustindarren ko-



Euskadiko Jaurlaritzak 1937ko maiatzean Benitori eskuratutako «igarobidea» (pasaportea), haurrei lagunduz, Ingalaterrara joan zedin

munitatea, eta nola ez, herri-eskola, berea bezala sentitzen zuen eskola utzi behar; euskararen presentzia irakaskuntzan jaino berritan bertan behera ikusi zuen gure protagonistak. 1937ko maiatzaren 21ean, *La Habana* itsasontzian Santurtzitik atera eta Southampton-erako bidea hartu zuen *Royal Navy*ren ontzi batek babesturik. Bertan lau mila haur euskaldun erbesteratuak zihozten eta beraiekin batera Aita Larrakoe-txea eta beste arduradun batzuk.

Aita Benitok lehendik ere ezagutzen zuen Erresuma Batua, hango hizkuntza ikastera

bertako komunitate agustindar batera joana zelako 1928ko udan. Horrela, berriro ere bere ingeleraz baliatu beharra izan zuen, haur erbesteratu haiei bere laguntza eskaintzen zien bitartean. Ez zuen luzaroegi iraun Ingalaterran eta bere nagusiek Hego Amerikako agustino laterandarren etxeak sendotzera bidali zuten. Uruguaira aurreneko eta Argentinara ondoren. Hor Salta izan zuen bizilekua luzaroan, bertako ikastetxean eskolak eman eta, ahal zuen neurrian, han ere euskara lantzen jardun zuelarik.



Benito Larrakoetxea Ingalaterran 1939an,
bere ohiko piparekin

Beste garai batean Oñatin egindakoa, orain Saltako Belgrano ikastetxean gauzatuko du, fisika, gizarte-zientziak eta ingelesa irakatsiz. Horrela, eta kontuan izanik Euskal Herrira itzultzea debekatua zeukala, Aita Larrakoetxeak behin-behingo zetsi zuen: hango lurralde ederrean luzaro bizi beharko zuen. Hala ere bere burua Euskal Herrian zeukan. Hemengo berriak tarteka jasotzen zituenean, bere gazte denboretako asmo abertzale eta euskaltzaleak lur jota zeudela konturatzen zen. Edonola ere, bere esku zegoenari heldu zion eta Shakes-



Saltako (Argentina) laterandaren komunitatea 1944-1945 aldera.
Larrakoetxea beheko lerroan 3.a eskuinetik, Fernando Urkia
piorraren ondoan

peareren lan guztiak euskaratzea bururatu zitzaion. Eta lan horri atxikita urteak eta urteak eman zituen, beti ere tarteka, beste eginbeharrak bete ondoren.

GARAICO AHOTSAK BIZIRIK

1928-1936 bitartean, Aita Larrakoetxea herriko eskolan hartu zuen parte. Bai Agustindarren komentuarien aldameneko gela batzuetan eta baita Santa Marinaran ere. Ez zegoen garai haietan toki apropos gehiegi aukeratzeko. Oñatiko zenbait herritarrek oso gogoan dute ume edo mutiko garaiko eskola haiek, oso giro onean emanak eta euskal



Donato Biain, Benito Larrakoetxearen ikasle ohia

zaletasuna ere eskaintzen zutena, nahiz eta irakaskuntza testuak erdarazkoak izan.

Orduko bi ikasle ohiekin harremanetan jarri naiz: Donato Biain eta Juan Zelaia-rekin. Eskola haiek bere helburua bete zuten, bai egunez eta baita gauez ere ematen zirelako. Zenbait sektoretan oraindik irakaskuntza ez zegoen hain baloratua, bereziki nekazaritza alorreko gizarte batean ez zelako horren behar handirik ikusten. Baina industria alorrean sartzen ari zen herri batek prestakuntza behar eta hor aurkitu zuten apur bat burua jasotzeko oinarria.

Tamalez, indar frankistak sartzeaz zirenean, aurreneko Aita Larrakoetxeak hankak jaso

zituen, inork behartu aurretik eta berriro ez itzultzeko agiririk izenpetu gabe. Ondoren beste irakasle batzuek erakutsi zuten euskal zaletasuna izan zela arrazoi bakarra. Alde egin behar eta, gainera, agiria sinatu sekula ez zirela bueltatuko.

1954an itzuli zen Aita Benito Ameriketatik lehenbizikoz. Donatok eta beste lagunek halako omenaldia egin nahi izan zioten, bazkari eta guzti. Bazkaria egin bai, egin zuten, baina Aita Benito ez zen joan ospakizun horretara, gerrak sortutako zauriak erabat sendatu gabe zeudelako. Orduan berriro Saltara joan zen eta hurrengo urtean Shakespeare euskaratzeari ekin zion.

AITA LARRAKOETXEAREN HIZKUNTZA

Aita Larrakoetxearen hizkuntzan bi atal bereiziko nituzke: hizkuntza mintzatua eta hizkuntza idatzia.

Mintzatzean, nire inguruan bizi zenean, Zeanuriko hizkuntza peto-pettoa hitz egiten zuen eta hika. Hizkuntza aberatsa zen berea. Beti zeukan zerbait guri, orduko



Bost bizkaitar ezagun Zeanurin 1980an, B. Larrakoetxearen omenaldikoan. Ezkerretik eskuinera: Santi Onaindia, karmeldar idazle oparoa; Sabin In-txaurrea, Zeanuriko alkatea eta Jaurlaritzako sailburua; Bedita Larrakoe-txea; Alberto Onaindia, Aita Olaso famatua; eta Martin Olazar abadea, euskaltzale suharra

gazteoi, erakusteko edo bere kasuan, zuzentzeko. «Hori ez dok holan esaten, beste honela baino.» «Hori ez dok El Gallo, Oilarra baino», Bizkaiko bidegurutze ezagunaz ari ginela. Eta guk, geure alde-tik bere esanei eragozpenen bat ezartzen genionean, adibidez, «Ba halako tokitan modu honetan erabiltzen dute hitz hau». Benitoren erantzuna hauxe izaten zen: «Ba guk, ez». Inolako zalantzarik egin gabe, beti ziurtasun handia ipiniz bere baieztape-netan, nolabait adierazi nahian berak, bere amarengandik, eta bere herrian jasotakoa zela euskararik jatorrena.

Bere ahotik honako beste hau ere entzun nion, gu euskara lantzen ari ginen batean. Axular zen aztergai eta, zirudienez, Aita Larrakoetxea ez zen Axular gehiegi aipatu zale. Horrela, *Gero* Axularren lana zela eta, hauxe erantzun zigun: «Bai, zuentzat Axularren kiratsa bada ere, usain ona du». Horrela adierazi nahi zigun gure literaturagile ospetsuaren lanak erdal kutsu handiegia zeukala, hitzetan ez ezik, joskeran, haren ustez, latinari erabat lotua zegoelako.

Urte luzez Argentinako Saltan bizi eta lanean jardun ondoren, azkenean, Francoren diktadura amaitzeaz zegoela, berriz herriratzeko baimena jaso zuenean, Oñatira itzuli zen. Ordurako Shakespeareren lana euskaratua zeukan. Baina hemen bertako garaiko mugimenduen berri jasotzen zuen ahal zuen guztietan. Adibidez, orduan jaio berri zen euskara batuaren kontra azaldu zen behin eta berriz erdara gehiegi sartzen zelako, berak gerra aurretik erabili eta eredutzat hartutako paradigmak aldatuta ikusten zituelako; hitz batez, ez zituen atsegin Mitxelena eta Euskaltzaindiko beste zenbaiten portaera.

Une hartan Azkueren hiztegia hartzen genuen guztien artean onena bezala. Ba, Aita



R. M. Azkueren hiztegiari Beditak 1970eko hamarkadan egindako oharrak eta iruzkinak

Benitok hainbat osagarri ere ezarri zizkion, bertan, gaurdaino gure liburutegian ikusi dai-tekeen bezala. Halako baten esan zidan: «Hi, goazen Elgetara, herri horren geografia bertatik ikustea nahi yoat eta». Ba, Elgetara joan eta hauxe esan zidan: «Benetan, Elgeta dok hau». Harentzat «elgak» lur sail luzexkak ziren, belarra nahiz beste edozer lantzeko. Azkueren hiztegian eranskin hori ipinita dauka. Eta honekin batera beste hainbat.

Ontzat hartzen zuen Azkueren lana. Baina gustura erantsiko zizkion hainbat eta

hainbat gehigarri, berak bere Zeanuri mai-tean jasotako eta gordetako hitz eta esaldiak. Eta garbi dago hitzen erabateko «birjinta-suna» nahi zuela, edozein tokitan erakutsi ahal izateko berak amaren bularretik jaso zuen hizkuntza hori gauza zela edozein gai erabili eta lantzeko eta ez zuela beste inoren laguntzarik behar. Ezta latinarena ere. Hori bai, nire iritziz, grekoa, berak «eladera» deitzen ziona, hori onartzen zuen.

Bere hizkuntza idatzia, berriz, hor dago edonork ikusi eta aztertu nahi badu. Berak erakusten du ondoen gure euskaltzalearen errealitate gordina.

EUSKALGINTZAN HASI BERRI GINENEN MAISU

Hirurogeiko hamarkadan, apur bat lehena-go ere bai, erlijiosoan seminarioetan halako euskararen berpiztea sortu zen, gerra ondorengo urteetan euskara erabat isilik eta zigorturik egon zelako herrialde guztietan. Aita Larrakoetxeak, Ingalaterrara ihesi eta Argentinara bere Ordenako nagusien esanetara joan zenean, utzitako euskal giroa isil eta mutu zegoen. Baina gauzak aldatuaz



Oñatiko laterandarrek 1960ko hamarkadan kaleratzen zuten *Erein* euskarazko aldizkariaren zenbaki bat

joan ziren, eta nahiz eta beldurra oraindik ere nagusi izan, «haize frexko» apur bat sartzen hasi zen hainbat seminariotan.

Horrela, besteak beste, apaizgai gazteek kontzientzia hartu genuen euskara denen beharrean zegoela eta guk ere geure ahalegina egin behar genuela. Garai hartakoak dira *Jakin*, gaurdaino bizirik dirauena, *Arnas*, *Laiaketan*, *Erein*, *Jesusen Biotzaren deia*, *Ezibide* eta beste aldizkari batzuk. Aita Larrakoetxeari dagokionez, *Erein* laterandar gazteon aldizkaritxoan egin zuen bere ekarpena. Orduan Saltan bizi zen eta

bertatik idazten zizkigun bere lantxoak. Horietan ere bere burua maisutzat hartuz, eta arrazoiz, gu ume moko besterik ez baikin.

Esan beharrik ere ez dago Aita Larrakoetxeak, han, Saltako bere urrutiko bizilekuan pozik jaso zuela erlijiosoen seminario desberdinetan eta baita elizbarrutietan ere sortu berria zen euskararekiko zaletasuna. Hala ere, berak ez zuen baikortasunez ikusten giro berriaren norabidea. Arantzazun 1968an egindako bileran eta, hamar urte beranduago, 1978an Bergaran gauzatzen ari zen euskara batuaren inguruan hartutako akordioek ez zioten poz handiegirik eman. Alderantziz, bide okerra zela iruditu zitzaion. Bizkaiko euskara nahiko albortua geratu zelako eta hizki alferrikakoa, bazterrak nahasteko bakarrik balio zuena, sartu zutelako: «hatxea», noski.

Aita Larrakoetxea, urte haietan, Argentinatik etorri berria zen, eta agian beretzat beranduegi zen bere buruan zituen eskeimak aldatzeko edo gutxienean, aire eta asmo berrietara egokitzeko. Esan ere egiten genion nola delako «H» hori, adibidez Iparraldean idatzi ez ezik, ahoskatzen zutela, halako aspirazio berezia egiten zutela,

eta erabaki hori bidezkoa zela nolabaiteko hizkuntza batasuna lortzeko. Baina Aita Benitorentzat, beste askorentzat bezala, gehiegikoa zen arau berria.

Bide batez, bere azken urteetako euskal idazleek euskara mordoiloegia erabiltzen zutela salatzen zuen, eta bere ezadostasuna erakusten zuen batez ere garaiko euskaltzainen aurka.

Gure *Erein* aldizkari xume harentzat Argentinatik lantxo batzuk bidali zituen:

- «Euskaraz ondo idazten ikasi dagigun». Lan honetan «ala», «naiz» eta «edo»ri buruz idazten du. Hauetako bakoitza noiz eta nola erabili behar diren erakutsiz eta akatsak zeintzuk izan daitezkeen, adibide eta guzti. Hemen ere bere Arratiako hizkuntzaren eragina modu nabarmenean erakusten du.
- «Albontsa Urkidi», bere adiskide eta komunitate lagunaren hiletaren berri emanaz, beste bat. Urkidik euskal toponimia-lanetan ziharduen, hiztegi bat prestatzen. Alor irristakor honetan jende ugari aritu da, bere teorien arrakasta gaur ere inork jakin ez dakiela zenbate-

rainokoa den. «Aita Urkidik asmatu ote zuen» zioen Larrakoetxeak.

- «Bertzeo'tar Gontzal». Lan honetan ere XII-XIII. mendeetako idazle honen kontuak aipatzen ditu, Errioxako hainbat izenen euskal jatorria azpimarratuz eta Urkidiren teoriari kasu eginez, Ber-tze-o hitz berorren esanahia azaltzen du: «Haitzaren aldameneko lautadatxoa».

Beraz, hauexek *Erein* aldizkaritxoaren orrietan egin zizkigun ekarpen laburrak, baina momentuan, gure ustez, balio handikoak.

Larrakoetxearen inguruan bere ikuspegi erdi ilun batzuk gogoratu baditut ere, berak orduko bere lan erraldoiarekin gogor jarraitzen zuen, Shakespeareren obrak euskaratzearekin, alegia, eta adibide bezala aipatzen zigun nola R. Olabidek Biblia osoa euskaratu zuen, N. Ormaetxea *Orixek* Agustin deunaren Aitorkizunak, J. Zaitetik Sofoklesen antzerki-lanak eta abar. Berreak ditugu hitz hauek: «Ez begiratu arri txokorrik eta arantzarik. Yaso begiak eta ikusi mendi gallurrean diz diz egiten dauen eguzki zorakorra».



Benito Larrakoetxea Saltako Belgrano ikastetxean
egon zen garaiko hainbat argazki



Shakespearearen antzerki-lanen euskaratzea

Larrakoetxea lehenbizikoz Ingalaterrara joan zeneko agiria, 1928.
Gerra-denboran ere erabili zuen

LANAK BEREZ DUEN BALIOA

Hauxe dugu Benito Larrakoetxearen lan erraldoia. Zergatik sartu zen gure protagonista buru-belarri lan hau egiten? Bazen gerra aurreko urteetan halako euskal pizkunde-giro bat, Lore Jokoen eta beste ekimen batzuen inguruan sortua. Eragin zehatza izan zuen, besteren artean, honako autore hauengan: Jokin Zaitegi, Gaizka Barandiaran, Santi Onaindia, Andima Ibinagabeitia, eta Larrakoetxea anaiengan, Hipolito eta Benito, baita Orixe berarengan ere. Hauen iritziz, besteak beste, literaturaren lan garrantzitsuenak euskaraz irakurtzeko ahalegin berezi bat egin be-

har zen batez ere unibertsitateari begira. Horrenbestez, Platon, Sofokles, Horazio, Virgilio eta abar euskaratu beharra zegoen.


Dinamika horretan, Benito Larrakoetxeak Shakespeare hautatu zuen bere lanerako helburutzat. Bere anaia Hipolitok (karmeldarra) beste alor bati heldu zion, *Bidegileak* sorta honetan argitara eman denez. Beti izan zuen Benitok hizkuntzak ikasteko joera. Ingelesa ikasten lehenbizi Bodmin-en egon zen, Kornuallesko muturrean, 1928ko uda osoan, ordenakide agustindarrek han zeukaten etxean. Gero 1937ko maiatzean, gerratean erbesteratuko haur euskaldunei lagunduz, Ingalaterrako hegoaldean urte pare bat igaro zuen Wight uharterko

kanpamenduetan eta beste leku batzuetan, Argentinara joan aurretik. Egonaldi horiek oso egoki etorriko zitzaizkion ingelesa hobetzeko eta zenbait urte beranduago helduko zion itzulpen-lanari behar bezala ekiteko.

ITZULPENAREN NONDIK NORAKOAK

Gorago aipatu denez, Argentinatik 1954an lehen aldiz Oñatira etorri eta berriro Ameriketara bueltatu zenean hartu zuen Aita Benitok W. Shakespeareren antzerki-lanak euskaratzen hasteko erabaki irmoa. Jokin Zaitegik kudeatzen zuen *Euzko-Gogoa* kultura-aldizkarian kaleratu ziren lehenbiziko hirurak: *Macbeth* (1957), *Lear Errege* (1958) eta *Ekatxa* (1959). Saltako ikastetxeko lanei utzi gabe, tinko jarraitu zion Larrakotxeak bere xedeari, 1968ra orduko idazle ingelesaren teatro-lan guztiak itzuli arte.

Ondoren bigarren zatia geratzen zitzaion. Ez errazena: guztiak argitaratzea. Horretarako 1972an Oñatiko agustindarren komentura itzuli zen. Oraindik ere 18 urte pasatuko ziren 96rekin hil zen arte. Beraz, sasoiko zegoen garai horretan. Eta Karda beraz taldekoen eskutik lanean jarri zen.



Macbeth tragediaren euskarazko itzulpena *Euzko-Gogoa* aldizkarian, 1957

Talde horren buruetako bat Juan Jose Garmendia Arzelus apaiz tolosarra zen, eta berearekin bideratu zituen argitaratze-lanak.

Moldiztegia Eset izenekoa zen eta Gasteizko seminarioan zegoen. Tarteka bertara joan beharra izaten zuen, inprenta-hutsak ugariak baitziren eta probak zehaztasunez begiratu beharrekoak. Gauzak horrela, oso gogoan dut, lan horretan ziharduela, bere betiko laguna, pipa, erretzen zuen bitartean, algara batean barrezka hasten zela, irakurtzen zituenek grazia egiten ziotelako, noski. Oso atsegina zuen egindako lana, eta neke handiak hartu bazituen haren itzulpenean, azkenean pozik zegoen berearekin.

Idazle britainiarraren teatro-lan guztien euskal bertsioak 1974 eta 1977 bitartean kaleratu ziren, sei liburukitan, baina bost

W. Shakespearearen
komedien Larrakoetxearen euskarapena,
Gasteiz, 1974



aletan, 3.a eta 4.a tomo bakarrean argitaratu baitzituzten. Eta zera ere aitortu behar da: Oñatin gerra aurreko herri-eskolan Benitoren ikasle izandako Juan Zelaia Letamendi enpresa-gizon oñatiar eta euskaltzalearen diru-laguntzari esker publikatu ahal izan zirela. Hona liburuon antolaketa:

- 1.- *Komediak A* (1974)
- 2.- *Komediak B* (1974)
3. eta 4.- *Odol-antzerkiak A* (1976)
- 5.- *Odol-antzerkiak B* (1976)
- 6.- *Dramak* (1977)

Arestian adierazitako hiru obra famatuez gain, beste antzezlan hilezkor asko eskuratu zigun itzultzaile arratiarrak liburu hauen bidez: besteak beste, *Binixa'ko saleroslea*; *Basatia ezita*; *Erromi eta Yuletxu*; *Otel*, *Binixa'ko mairua*; *Hamlet*, *Danemarkako*

erregeseme; *Yuli Kaisar*; *Andoni ta Kelopaterre*; edota *Koriolan*. Hogeita hamazazpi antzerki-lan guztira, 1.606 orrialdetan.

ADITUENTZAKO HIZKUNTZA

«Euskera yatorrez, al izan dodan lirainen, dotoreen, txairoen eta txukunenez euskeraztu dot Shakespeare, irakurriago ta zoragarriago, atsegingarriago egiten yakun Shakespeare», diosku Beditak moldatu zuela bere lan erraldoia. Egia esan, ez dut uste itzulpen-lan honetan Aita Larrakoetxeak erabiltzen duen hizkuntza erraza denik irakurtzeko. Benitok sakonki ezagutzen zuen euskara. Ez dakit zenbateraino irakurri ote zuen iparraldekoa. Baina bereziki berean, Arratiakoan, zen maisu. Eta garbi dago lokalismo ugari erabiltzen duela. Beraz, gutxienik, hizkuntzari osagarri ederra eskaintzen dio, euskara peto-petoa diren hitzak erabiliz, asko berreskuratuz eta tarteka batzuk berak asmatuz ere bai, Sabino Aranak bere garaian sortzeko teknikari jarraituta, nahiz eta gehiengo bati bere erabilera ia ezina egiten zaion.

Ordurako Bizkaian egina zuten ahaleginen bat bertoko euskalki batu samarra moldatzeko. Baina, Benitok edo ez zuen horren

berri Argentinan bizi zelako, edo jakin bazekien ere, ez zion batasun horri jaramonik egin. Arratiako euskara erabili zuen eta sarrri askotan bera ere konturatzen da edo nork ezingo duela hainbat hitz bereganatu eta horren lagungarri berezia ere badaki eskaintzen hiztegi baten bidez.

Larrakoetxeak testua euskaratzean ez dabil beste batzuk bezala, ideia jaso eta bere erara moldatu, ondoren nolabait bere esanahia labur bilduz emateko. Ez. Larrakoetxeak testuari zuzenean begiratu eta hitzez hitz euskaraz ematen saiatzen da, autoreari inolako traiziorik egin gabe. Ez du, beraz, «traditore» izan nahi.

OÑATIKO OMENALDIA ETA XABIER MENDIGUREN BEREZIATUREN HITZALDIA

Bai Zeanurin, bere jaioterrian, eta baita Oñatin ere, bere adopzio herrian, Aita Larrakoetxeak omenaldiak jaso zituen 1980ko hamarkadan. Larrakoetxea Oñatin euskarekin lotuta geratuko da, 1988an udal euskaltegiari Benitoren izena jarri baitzitzaien. Merezitako omenaldiak, zalantzarik gabe.

Horietako batean, Oñatiko Kultur etxean, Xabier Mendiguren Bereziartuk hitz egin zuen. Oso hitzaldi borobila, esanguratsua eta gure protagonistaren lana eta lan horren eragina zehaztasunez erakutsi zuena. Larrakoetxea eta bere antzeko beste batzuen lana gorai patzeaz aparte, Zaitegi, Barandiaran, Orixerena besteak beste, Benitoren itzulpenaz luze jardun zuen. Mendiguren ustez, lan hori beranduegi etorri zen.

Unibertsitateetan behar omen ziren klasikoak. Klasikoak euskaraz eta horrelako lana egin gabe zegoen. Hala ere, Aita Larrakoetxeak bere lana hasi eta inprimategitik atera zenerako urte asko pasatu zi-



Benito Zeanuriko omenaldikoan. Egun horretan honela zioen plaka bat eman zioten:
«Larrakoetxea'tar Benito lekaide on, idazle ospetsu eta euskaldun zintzoari Zeanuriko erriak. 1980ko dagonillak 16»

ren. Eta ez nolana hikoak. Izan ere, Euskal Herrian urte gutxitan hizkuntza alorrean iraultza handia gertatu zelako eta gerra aurreko pentsaera eta idazkera zaharkituak gertatzen zirelako lan horrek argia ikusi zuen unean. Ezin ahaztuko dugu Larrakoetxearen euskara, aberatsa izanik ere, bizkaieraz, are gehiago, arratieraz emana dela. Beraz hortxe arazo bat, eta ez nolana hikoak.

Ikastolak sortuak ziren, euskal alorra indartzen ari zen, ez zen lehengo jazarpenik euskarekiko, eta aire berriek jotzen zuten euskal kulturaren inguruan: euskal unibertsitatea ametsetan, euskara batua –Larrakoetxeak maite ez zuena–, ikasleek zerbait berehala eskuartean behar. Beraz, nolabait esateko, oraingoz behintzat, inork gutxik erabiltzeko moduko lana. Beste askok bezala, Aita Benitok «frankotiradore» baten antzera jokatu zuen. Eta bere lanari beste ikuspegi batzuetatik eman behar zaio balioa.

LARRAKOETXEAREN LANAREN ALDE

Gizon oso jantzia zen. Lan asko egin, toki ugari arakatu, jende asko bisitatu eta elkarizketatu zuena. Horrela, berak emandako



Eli Galdos Oñatiko alkatea B. Larrakoetxea eta B. Meabe laterandarrekin, 1984

pausoak benetan txalogarriak dira. Euskaltzaindiak lan hori eta bere bizitzan zehar egindakoa, oro har, eskertu zion urgazleen eta ohorezko euskaltzainen artean ezarriz.

Euskarak, aurrerantzean ere, izango ditu premiak ur sakon eta aberatsetan murgildu eta altxorak topatzeko. Larrakoetxearen lana da horietako putzu bat, eta esango nuke ia agortezina dela. Gaur gure gizarte egoera aldatuz doakigun neurrian, askok ez dakizkigu baserrietan erabiltzen diren tresnen izenak, eta ehuleen artekoena ere ez. Agian ezta olagintzaren alorrekoak ere. Horren jabe egiteko museotara jo beharrean aurkitzen gara. Larrakoetxearen lana, bai lan propioetan eta bai itzulpen erraldoi honetan, iturri oparoa izan daiteke.



W. Shakespeareren tragedien Larrakotxearen euskarapena, Gasteiz, 1976

Hitanoa ere desagertuz doa gure inguruetatik. Gizakumeen artekoa, hor non-bait. Emakumeena bereziki ia inork ez du erabiltzen. Eta Aita Larrakoetxeak bildu du hainbat eta hainbat aditz-joko. Hauxe, beraz, Shakespeareren itzulpenaren inguruan gogoratu zaidana eta bildu ahal izan dudana.

AMAITZEKO

Epe eta lanaren hedaduraren mugetan ibili beharrak beti du egokitu eta neurtu beharra. Aita Benitori buruzko zehaztasunez gain, hauxe esango nuke laburbilduz: gizon burutsua, argia, behin goldea eskuetan hartu eta atzera sekula begiratu ez zuena, euskaltzale eta abertzalea, Etxepareren antzera euskarari bere *tornua* ematen saiatu zena eta bere ondarea utzi diguna. Gizon miresgarria zen gure Bedita.



Zeanuriko udaletxea

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Agustino laterandarren komunitateari
- Gurutz Jausorori
- Donato Biaini

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz
ISBN: 978-84-457-3325-7 (Lan osoarena)
978-84-457-3329-5
L.G.: VI 862/2013



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA